

BEZEROEKIKO HARREMANAK


Bezeroekiko harremana funtsezkoa da komunikatzeko eta haien nahiak betetzeko. Honen helburu nagusia bezeroak mantentzea da, azken finean, enpresari eusteko eta erdigunea ez galtzeko. Guretzat, bezeroekin harreman estu bat izatea beharrezkoa da gure produktua egokitzeko eta saltzeko, haiekin aurrez aurreko kontaktua mantenduko baitugu.

Gure bezeroek baldintza desberdinak dituzten arren, gure aldetik denekin antzeko tratua izango dugu eta honela izateko, hainbat urrats jarraituko ditugu.

Gertutasuna da bezero guztiek bilatzen dutena, horregatik, gure enpresaren gako gisa identifikatu dugu. Bezeroa izango litzateke protagonista produktua saltzerako garaian, hau da, bere egoerara egokituko gara, aurrez aurreko harremana sustatuz, zalantzak argituz eta ahalik eta zerbitzu honena eskainiz. Beste enpresengandik desberdintzen gaituena da eroslearen etxera joango garela, bere egoera ikusteko eta produktua bertan txertatzeko.



Gainera, funtsezko pauso bat iruditzen zaigu kontsumitzaile bakoitzari laguntza guztiz pertsonalizatu eta indibiduala eskaintzea. Hain zuzen ere, bezero bakoitza mundu bat da eta baita bakoitzaren beharrak ere, eta guk hauek ondo asetzeko, laguntza desberdin bat emango diegu bakoitzari.



Prozesu osoan zehar, gure bezeroak dena gertutik jarraituko dutenez, eroso sentiaraziko diegu, gure enpresaren eta bezeroen artean konfidatza sortuz. Bestalde, arazo bat izango balute telefono bidez edo email bidez gurekin 24 orduko zerbitzua eskeintzen dugu. Telefonoa edo email helbidea aurkitzeko gure webgunean ikusgai egongo da.

Bezeroa goxotasunean bermatzeko prozesuaren informazioa eta azalpenak emango dizkiogu, instalakuntzaren ezaugarriak jakiteko eta osotasunean produktua ezagutzeko. Urtero egin beharreko berrikuspenarekin, bezeroarekin kontaktua ez galtzeak, konfiantza sorraraziko du bion artean.